

altza

IRU TXULO 07.06.96

Altzako Kale Hezitzaileen inguruan antolatatu diren ekintzak ditugu protagonista nagusi aste honetan. Lehenik, koadrila arteko olinpiadetan parte hartu dutenen artean sari banaketa egingo da kiroldegian ekainaren 8an goizeko 11.00etan.

Gai berarekin jarraituz, ekainaren 10etik 15era «Altzako I. Olinpiadak» erakusketa izango dugu zabalik.

Berriz, hilaren 10ean sexualitateari buruzko 2. kartel lehiaketan parte hartutako 90 lanen erakusketa bukatuko da.

Ekintza guztiek sarrera

dohainik izango dute.

Larratzoko festak bete-betean izango ditugu asteburu honetan. Hurrez alkatea aukeratu da jadanik eta igandera bitartean, musika, dantza, barrea eta algara izango dira. Hasi dira, beraz, udako jaiak gure auzoetan.

